

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Behin betiko onespena ematea Lagrango Udalaren udal karparen lagapena eta erabilera arautzen dituen ordenantzari

Udal honek, 2022ko azaroaren 23an egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion Lagrango Udalaren udal karparen lagapena eta erabilera arautzen dituen ordenantzari. Ordenantza horren iragarkia 2023ko urtarrilaren 4ko ALHAOn (2. zenbakia) eta iragarki taulan argitaratu zen, eta jendaurrean egon den aldian erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsita geratu da. Hortaz, osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin.

LAGRANGO UDALAREN UDAL KARPAREN LAGAPENA ETA ERABILERA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua

Araudi honen xedea da Lagrango Udalaren udal karparen lagapena eta erabilera arautzea, administrazio batzarrek, eskualdeko edo eskualde mugakideetako administrazio publikoek antolatzen dituzten era guztietako jarduera soziokulturalak eta ekitaldiak egiteko.

2. artikulua. Balizko erabilerak

Udal karparen honako jarduera hauek egin ahal izango dira: Administrazio batzarrek, eskualdeko edo eskualde mugakideetako administrazio publikoek antolatzen dituzten musika, gastronomia, antzezpen, kirol eta kultura ekitaldiak.

3. artikulua. Debeekatutako erabilerak

Debeekatuta dago zuzenean edo zeharka sexua, arraza, erlijioa, iritzia, sexu joera edo beste edozein arrazoi dela eta edozein eratako bereizkeria eragiten duen edozertarako erabiltzea udal karpa.

Era berean, debeekatuta dago arau hauste administratibo edo penalen bat eragin dezakeen edozertarako erabiltzea.

4. artikulua. Onuradunak

Administrazio batzarrek, eskualdeko edo eskualde mugakideetako administrazio publikoek eskatu ahal izango dute udal karpa lagatzea, antolatzen dituzten gizarte, kultura, musika, gastronomia, kirol eta jai ekitaldietarako.

5. artikulua. Tasak

Udal karpa doan lagako da.

6. artikulua. Prozedura eta kudeaketa arauak

6.1. Udal karpa lagatzeko eta erabiltzeko eskaera idatziz egin beharko da. Eskaeretan honako hauek jaso behar dira:

- Eskatzailearen datuak.
- Erabileraren iraupena (zein ekitaldietarako lagatzen den).
- Egingo diren jardueren zerrenda.
- Gauzatuko den jarduera publikoa edo pribatua den.

e) Pertsona kopurua.

f) Helburua.

g) Lagatzen den instalazioa behar bezala erabili eta zaintzeko konpromisoa, eta udal karpari sor dakizkiokeen kalteen aurrean erantzuteko konpromisoa.

Erabili baino gutxienez 20 egun natural lehenago aurkeztu beharko da eskaera, eta alkatetzaren ebazpen bidez emango da baimena. Udal karpa laga edota erabili aurretik, Lagrango Udalak egokitzat jotzen dituen dokumentu, txosten edo argibide osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

Eskaera egin eta 10 egun naturaleko epean ebazpenik ematen ez bada, eskaera administrazio isiltasunez ezetsizat joko da.

6.2. Udal karpa lagatzeak beste betebeharrak batzuk ekarriko ditu, hala nola ekitaldia egiteko behar diren langileak kontratatzea, esparrua osorik garbitzea, herritarren segurtasuna bermatzea, zaintza lanak egitea, zaraten eta ordutegi mugak betetzea, eta abar. Lagrango Udalak horri buruzko plan zehatza eskatu ahal izango du, jarduerak behar bezalako prestaketa eta plangintza dituen ebaluatzeko.

6.3. Karpa Lagrango udalerrian edozein ikuskizun edo jolas jarduera egiteko erabiltzeko denean, Lagrango Udalak alde aurretik baimendu beharko du dena delako ikuskizuna edo jolas jarduera. Horretarako, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Euskal Legean eta hura garatzeko araudietan xedatutakoa aplikatuko da (erantzukizun zibileko aseguruak, ordutegiak...).

6.4. Lagrango Udalak udal karpa erabiltzeko lagapena ukatu ahal izango du, segurtasun, osasungarritasun edo behar bezala egiaztatutako interes publikoko beste edozein inguruabar dela medio.

6.5. Lagrango Udalak jarduera bati emandako baimena errebotatu ahal izango du, baldin eta jarduera egin baino 15 egun lehenago erregistroan eskaera bat sartzen bada udal karpa egun berean jarduera publiko baterako erabiltzeko edo udalbatzak uste badu jarduera hori udalerriko bizilagunentzat interes handiagokoa edo onuragarriagoa dela.

6.6. Egun bererako eskaera bat baino gehiago badago, udalbatzak lehentasuna emango dio betekizun hauetako gehien betetzen dituen eskatzaileari:

- Interes orokorreko kultura jarduera, udalerritik kanpo oihartzuna izan dezakeena.
- Ibilbide sendoko kultura jarduera.
- Boluntario gehien dituen kultura jarduera.
- Udalerritik kanpoko jende gehiago erakarriko duela aurreikusten den kultura jarduera.

Bi eskaerak jarduera mota bererako badira (gastronomikoa, bazkaria), lehentasuna emango zaio kultura jarduera bati lotutako jardueraren eskatzaileari.

6.7. Egun bererako eskaera bat baino gehiago badago, baina ez badira ordu berean egitekoak eta bateragarriak badira, lehenengo ekitaldiaren arduraduneri karpa jaso eta bigarren ekitaldiaren arduradunari ahalik eta azkarren emateko eskatuko zaie.

7. artikulua. Betebeharrak

7.1. Udal karpa lagatzeko eskatzen duten administrazio publikoek karpa garraiatu beharko dute, beren kontura, gordetzen den tokitik haien herriraino, eta alderantziz. Administrazio publiko eskatzaileek beren baliabideak jarri beharko dituzte, bai pertsonalak, bai materialak, karpa kargatzeko edota deskargatzeko.

Udal karpa eskatzen duten administrazio publikoek karpa muntatzeaz eta desmuntatzeaz arduratu beharko dute, beren baliabideekin edo behar bezala egiaztatutako enpresa espezializatuen bidez.

Era berean, honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Beharrezkoa den informazioa eman beharko dute eta lankidetzan aritu, instalazioek egoki funtziona dezaten eta erabilerak egoki programatu ahal izateko.

b) Beren gain hartu beharko dituzte egile eskubideei eta jarduera gauzatzeko eska daitezkeen administrazio baimenei dagozkien betebeharrak.

c) Udal karparen barrualdea eta inguruak garbitu beharko dituzte behin ekitaldia amaituta.

7.3. Udal karpa lagatzeko edo erabiltzeko eskatzen duten administrazio publikoak izango dira, ondorio guztietarako, instalazioetan sustatzen diren jardueren eta zerbitzuak ematearen erantzule. Era berean, udal karpari ematen dioten erabileraren erantzule izango dira Lagrango Udalaren aurrean.

7.4. Lagrango Udalak ez du bere gain hartzen udal karparen erabiltzaileen jardueren ekipamendua eta materiala galdu, lapurtu edo hondatzearen erantzukizuna.

7.5. Jarduera jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren araudiari lotuta badago, eskatzaileak dagokion administrazio eskudunaren baimena lortu duela egiaztatu beharko du.

7.6. Jarduera egiteko behar den azpiegitura (megafonia, jarduerarako berariazko argiztapena, etab.) antolatzaileak eman eta jarri beharko dute, eta jarduera amaitzean, udal karpa aurkitu duten baldintza berberetan utzi beharko dute.

7.7. Udal karpa erabiltzeak azpiegitura suntsitzea edo hondatzea badakar, onuradunak berreraikitze edo konpontze gastuen kostu osoa itzuli beharko du, bai eta gastu horien zenbatekoa aurretiaz gordailutu ere. Kalteak konponezinak badira, Lagrango Udalari kalte ordaina eman beharko zaio, alegia, suntsitutako ondasunen balioaren edo kaltetutako ondasunen narriaduraren zenbatekoa, eta horrez gain, udalak bidezkoak diren egintzak ere bidera ditzake.

7.8. Karpa ekitaldia amaitu eta berehala desmuntatu beharko da. Muntaketaz arduratu diren pertsona berak izango dira horren erantzule. Karpa eta atoa haien ohiko lekuan utzi beharko dira berehala, edo ekitaldia Lagranen ez bada, leku segurua batean gorde beharko dira entregatu arte.

8. artikulua. Fidantza eta erabiltzearen erantzukizuna

Eskatzailearen kontura izango dira udal karpa erabiltzeak eragin ditzakeen garbiketa eta erantzukizunak. Karpa erabili aurretik zegoen garbitasun eta mantentze egoera berean itzuli beharko da.

Udal karpa erabili, gozatu edo aprobetxatzeagatik karpa hondatu edo kaltetzen bada, kalteak erreklamatuko dira konponketaren edo kaltearen zenbatekoa estali arte.

9. artikulua. Karparen urteko egutegia

Lagrango Udalak egutegi bat egingo du karpa muntatuta egongo den urte aldiak eta kokapenak jasotzeko, udal karparen eskatzaile izan daitezkeenen karpa noiz laga edota erabil dezaketen jakin dezaten.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Alkate-lehendakariak ahalmena du araudi hau behar bezala interpretatzeko, garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren agindu eta jarraibide guztiak emateko. Era berean, erabilera eskatzeko eta baimentzeko ereduak unean uneko beharretara egokitzeko ahalmena ere badu.

Bigarrena. Araudi honetan jaso ez den guztirako, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: 7/1985 Legea, Toki Ogasunei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua eta gainerako araudi aplikagarria.

Xedapen indargabetzailea

Lehenengoa. Artikulu hauetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheargoko mailako xedapen guztiak indargabetzen dira.

Azken xedapena

Lehenengoa. Araudi hau indarrean sartuko da ALHAOn argitaratu ondoren.

Lagran, 2023ko martxoaren 6a

Alkatea

JOSÉ M^a MARTÍNEZ FERNÁNDEZ